

Eguna girotzen laguntzeko bertan izango dira **MUNGIAKO GURE AMETSA TXISTULARI ELKARTEA, DULZAINEROAK, ROBERTO eta IDOIA(TRIKI) eta TXIKURI FANFARRIA.**

MUNGIAKO SUKALKI LEHIAKETAKO OINARRIAK

Sukalkia okela-gisadua da, ez erregosia.

Gisadu hori egiteko Bizkaiko sukaldaritza tradizionalako jeneroak erabiltzen dira. Mungiarrok 50 urte baino gehiago daroaguz horren gogoko dogun jarduera gastronomikoa antolatzen.

1. OSAGIAK:

- . Behi-okelea: faldea, zankarroia edota agujea.
 - . Patatak (okeleagaz batera prestau behar dira, haren gustua eta saldearena hartu daien); neurriak beti baserriko gisaduetan erabili dana izan behar dau, forma biribilduan zein laskeatuan.
 - . Piper txorixeruak (sano garrantzitsuak dira gisaduaren gusturako eta kolorerako).
 - . Kinpulea (garrantzitzua gisaduaren gusturako eta kolorerako).
 - . Idarrak, Zanoriak, Tomateak, Berakatza, Oliba-orioa edo txarri koipea, Gatza eta Ardao zuria.
- Plater hau prestatzeko bakotxak gustuko dauen okela-saldea erabili ahal dau.

2. EGITEKO ARAUAK:

- . Sukalkia, txapelketa-gunearen barruan egin behar da.
- . Sukalkia egiteko ezin da presinoko lapikorik edo arin prestatzeko lapiko berezirik erabili.
- . Txapelketara aurkezten diran kazuelek gitxienetik sei laguntzako beste jateko euki behar dabe.
- . Gomendioa: (sua egurragaz egiteko asmoa badozu), behetik apur bat gorago igon da dagozan suak edo barbakoak erabiltea gomendatzen dogu, izan bere, horixe da Uriguen Parkeko beheko debarra jagoteko modua.

3. IZEN EMOTEA:

Kazulen izen emotea debaldekoa izango da eta 10:00 eta 11:30 bitartean egin beharko da, bertan parkean.

4. KAZULEN AURKEZPENA:

Kazuelak 13:00etatik 14:00etara aurkeztu beharko dira.

5. PUNTUAZINOA:

- . Gisaduaren aurkezpena: 5 puntu gehienez.
- . Gustua: 10 puntu gehienez.
- . Puntua: 10 puntu gehienez.

6. SARI BANAKETA:

Sari banaketa 17:30ean hasiko da, betiko tanborradearen ostean. (**GURE AMETSA Txistulari Elkarteagaz**).

7. OHARRAK:

- . Antolatzaileek ez dau banatuko sua egiteko egurrik, bakotxak ekarri bekarko dau berak behar daben egurra. (sua egurregaz egiteko asmoa badozu).
- . Antolatzaileek zaborrak sailka banatzeko eta batzeko boltsa egokiak banatuko ditue. Sukalki eremuan zaborrak sailkatuta botateko edukinontzi bereziak egongo dira horretarako gunen baten.
- . Gomendatzen dogu jazkeran tradizioari eustea, hau da, gona edo fraka urdinak eta kamiseta zuriagaz joatea.
- . Mesedez, batu zabor guztiak eta itxi arabilitako eremua garbi eta txukun.

8. GALARAZOTA DAGO:

- . Ibilgailuak sartzea eta ibiltea Sukalki eremuaren barruan, horretarako baimena antolatzaileek eta Larrialdietako zerbitzuetakoek baino ez daukie.
- . Ezin da gunerik itxi Sukalki eremuaren barruan.

9. IZOTZA:

- . Sukalki Lehiaketaren eremuaren barruan goizean zehar, izotza erosteko aukera egongo da. (txosnan)

Oharra:

Lehiaketa honetan parte hartzeak beronen oinarri guztiak onartzea dakar.

Antolatzaileek euren esku izango dabe oinarri honeei lotuta sortu leitekean edozein zalantza, ezusteko edo interpretazinoaren aurrean erabagiak hartzeko eskubidea. Era berean, lehiaketa ondo bideratzeko egoikitzak jotzen daben adozein aldaketa egiteko eskumena bere izango dabe Antolatzaileek.

Antolatzailea: MUNGIA RUGBY TALDEA.

10:30 KALEJIRA. DULTZAINEROakaz.

11:30 KALEJIRA GURE AMETSA Txistulari Elkarteagaz.

12:30 KALEJIRA Trikitilariakaz. (IDOIA eta ROBERTOgaz).

14:00 KALEJIREA TXIKURI FANFARRIAGAZ

19:00 Hasita, KALEJIRA Foruen plazara arte TXIKURI fanfariagaz.

22:00 Foruen Plazan, ERROMERIA.

24:00 SAN PEDRO JAIEN AMAIERA, Udaletxe aurrean Marijatari agur esan eta paineluak erreko dira.